



**LESAKAKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE LESAKA**

Plaza Zaharra, 1  
31770 Lesaka (Nafarroa)

Telf. 948637005

[www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus)  
[udala@lesaka.eus](mailto:udala@lesaka.eus)

## **Lesakako udal gobernu taldearen idatzia jubilatuen ostatuari buruz**

Jubilatuen ostatuaren kudeaketaren inguruan sortu diren zalantzak eta gorabeherak kontuan hartuta, honako komunikatu hau ateratzea erabaki du Lesakako udal gobernu taldeak.

Duela 27 urte, hau da, 1994. urtean, San Fermin jubilatuen eta pentsionisten elkarteak eta Lesakako Udalak zesio kontratu bat sinatu zuten, zeinaren bitartez Eskriboenea eraikuntza, Beheko plaza 9 azpiko solairuan kokatua, aipatutako elkarteari uzten baitzitzaion. Horren arabera, elkarteak kudeatu ditu bai eraikuntzan izandako jarduera guztiak, baita ostatua bera ere urte hauetan guzietan.

Testuinguru horretan gertatu da ostatuaren azken eskualdatzea. Jubilatuen elkarteak kudeatu du prozesua autonomia osoz, eta emaitza urte bateko kontratua (hirura luzatzen ahal dena) izan da, proiektu berri bati bidea emanez.

Udal honek errespetatu egin du kudeaketa osoa, parte hartu gabe, aipatutako zesio-kontratuan eta elkartearen borondatean oinarrituta. Guretzat hagitx garrantzitsua da elkarte horrek egiten duen lana. Bi urte daramatzagu diru-laguntzez, kulturaz, ongizateaz, honetaz eta hartaz eztabaidatzen eta adosten, hamaika bilera eginak, betiere herriari zerbitzu onena eman nahian.

Azken gertaerak direla eta, ohartu gara zesio kontratua zaharkitua dagoela, gabeziak dituela eta eguneratu beharra dagoela. Eta onartu ere egiten dugu hautaketa prozesuan gauzak hobeki egiten ahal zirela.

Berriz ez gertatzeko, bi aldeen artean zesio-kontratu berri bat sinatuko dugu laster, eta horren arabera aztertuko da hurrengo ostatuaren kudeaketa egokia hemendik urte betera.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu bide guzietan daudela zuloak, eta ibiltzen denak bakarrik sartzen duela hanka haietan. Eta akatsetatik ikasi behar da. Bi aldeek segituko dugu borondate hoberenarekin lanean, batzuetan autonomia osoz, bertzeetan elkarrekin. Hagitx garrantzitsua da herriarentzat jubilatuen elkarteak eragile gisa egiten duen lana, adin batean non normalena deskantsatzea den, bizitza osoan emandakoaren ordaina jasoaz.

Inork prozesuaren inguruan zehaztasun gehiago jakin nahi badu, udalaren ateak irekiak ditu beti bezala.

Adeitasunez,

Lesakako udal gobernu taldea

Lesakan, 2021ko maiatzaren 7an